

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Asunto: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Batzarraren datuak:

Eguna: 2016-09-29

Lekua: Santa Klara jauregia

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu

Gizatiar: Olga Bolivar, Carmen Gaztañaga Sobrino

Eskuz-Esku: Isabel Pérez Ares

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Roda: Clara Lorenzo Quevedo

EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Paula Amieva Clemente

Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio

Talde Popularra: Susana De Cos Yañez

ELA: Elvira Lemona Díaz

Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Idoia Eizmendi Aldasoro

Ez dira bertaratu

Berritzegune

Aztergai-zerrenda

- Aurreko batzarreko akta onartzea
- Ekainaren 28a, LGTB eskubideen nazioarteko eguna baloratzea
- Jaietako kanpaina baloratzea
- Azaroaren 25a: Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna / Beldur Barik
- Diagnostikoa eta Berdintasunaren IV. Plana.
- Jabekuntza Eskola

- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta onartu da.

Ekainaren 28a, LGTB eskubideen nazioarteko eguna, baloratzea

Berdintasun teknikariak gogora ekarri du "Los chicos están bien" filma proiektatu zela, eta Pikara magazine aldizkari feministako koordinatzailea den Andrea Momoitio izan zela dinamizatzailea. Ez zen jende askorik etorri, baina etorri zirenek parte hartzeko jarrera izan zuten.

Mujeres con Voz-ek dio filma jartzerakoan arazo teknikoak egon zirela baina azkenean konpondu egin zirela.

Jaietako kanpaina baloratzea

Berdintasun teknikariak azaldu du aurreko batzarrean esan zela jaietan kartelak jarriko zirela bakarrik. Baina, gaiak komunikabideetan jaso zuen arreta ikusita, azken unean erabaki zen informazio-mahaiak jartzea 3 orduz jai bakoitzean, eta materialak banatzea, zehazki, Beldur Barik gidak, gazteei zuzenduak, "Eratorik ez. No siempre es no" leloa daukaten pegatinak, eta "En casa como en fiestas, iguales/ Etxean, zein festetan bardin" leloa daukaten poltsak. Erantsi du harrera ona izan dela oro har. Zailtasun handiena Portu Zaharrean egon zen. Jendea plazan bilduta zegoen, eta ez zegoenez lekurik, mahaia zabalgunean jarri zen. Bertatik ez zen ia inor pasatzen. Beraz, mahaiko gazteetako bat plazara hurbildu zen eta materialak banatu zituen. Jai honetan, gainera, haizea zebilenez ezin izan zen karpa ipini.

Azaroaren 25a: Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna / Beldur Barik

Berdintasun zinegotziak azaldu du beste batzuetan bezala epe bat emango dela azaroaren 25erako, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunerako, proposamenak aurkezteko. Gogora ekarri du Beldur Barik gidaliburu berria, gazteei jaietarako zuzendua, ez zabaltzea baloratu zela, eta horren ordean egun hauetarako uztea. Horrela, Berdintasun Zerbitzuak proposatu zuen materialak banatzeko etxola bat ipintzea bi gune handietan, zehazki, Algortako eta Areetako metro geltokietan, hilaren 24an eta 25ean.

Bestalde, berdintasun zinegotziak jakitera eman du bezperan, irailak 28, pertsonen salerosketari buruzko adierazpen instituzional bat egiteari buruz Bozeramaileen

Batzarrak hartutako erabakia jakitera eman dela osoko bilkuran. Erabaki horretan, gaiaz sentsibilizatzeko lanak egitea proposatu da. Horregatik, gaiari buruzko balizko hitzaldi bat proposatu da CEAREkin, azaroaren 25eko jardueren artean.

Ciudadanosek esan du adierazpena bere taldearen proposamena izan zela eta eskaeran, hau da, bezeroetan, jarri zutela indarra.

EH Bilduk emakume errefuxiatuen gaia kalera ateratzea proposatu du, performance edo antzezlan baten bidez. Erantsi du Ereagako hondartzan errefuxiatuei buruz egin zen ekintzak oihartzun handia izan zuela, eta zerbait egin litekeela emakume elkarteekin eta elkarte feministekin batera, eta errefuxiatuen gaian lanean ari diren pertsonekin. Berdintasun zinegotziak uste du gaiak nahasten ari direla. EH Bilduk erantzun du, horri buruzko prestakuntzetan ikusi denez, gai bat lantzen duenak bestea lantzen duela era berean. Hau da, errefuxiatuak eta pertsonen salerosketa behin eta berriro agertzen dira elkarri lotuta, errefuxiatuei buruz hitz egitean behartutako migrazioez ere ari garelako.

Berdintasun zinegotziak gogorarazi du ez dugula indarkeriaren ikuspegia galdu behar, azaroaren 25aren testuinguruan egingo baita. Horri buruz, Mujeres con Voz elkarteak esan du pertsonen legez kanpoko eta behartutako leku-aldaketetan, pertsonen salerosketan, emakume batzuk bortxatzen dituztela eta beste batzuek sexu-harremanak izan behar izaten dituztela bidaia egin ahal izateko.

Eskuz esku-k proposatu du parte hartze izaera daukan antzerki-jardueraren bat egiten bada elkarte horretako antzerki taldeak parte har lezakeela agian.

Berdintasun zinegotziak, bestalde, jakitera eman du antzezlan bat ixteke dagoela, tratu txarren biktima diren emakumeen parte hartzearekin.¹

Agendari begiratu bat emanez, Bilgune Feministak esan du zurrumurruen aurkako kanpainaren barruan emakumeen eta islamaren inguruko hitzaldi bat dagoela. Berdintasun teknikariak, berriz, Euskara Zerbitzuak Iparraldeari buruz antolatu dituen jardunaldien barruko jarduerak azaldu ditu, aurtengo protagonistak emakumeak baitira.

Epe bat eskaintzea erabaki da, talderen batek proposamen berririk egin nahi balu.

Diagnostikoa eta Berdintasunaren IV. Plana.

Berdintasun teknikariak diagnostikoa eta IV. Plana zein fasetan dauden azaldu du. Ekaineko tailerrez gain, zeintzuetan Kontseiluko kide batzuek parte hartu zuten, teknikariei elkarriketak egin zaizkie eta informazioa biltzen ari gara, arloetako

¹ “Apasionadas” antzezlanaz ari da, Utopian konpainiarekin azaroaren 27an antzeztuko dena.

memorien eta estatistiken bidez, beste erakunde batzuei kontsultak eginez, eta abar. Diagnostikoaren zati bat idatzita dago eta arloekin kontrastatzeko fasean dago. Aldi berean, IV Plana diseinatzeko informazioa ateratzen ari da.

Dokumentuak aurreratuago daudenean Kontseiluari aurkeztuko zaizkio.

Berdintasun zinegotziak gaineratu du Getxon berdintasun planak osoko bilkuran onartu ohi direla eta, ahal baldin bada, ideia abenduko osoko bilkurara eramatea dela, Emakundek txostena egin ostean.

Jabekuntza Eskola

Berdintasun teknikariak Jabekuntza Eskolan izandako inskripzioen berri eman du.

Ikasturtea	Ikastaro kopurua	Inskripzio kopurua	Plaza kopurua	Ikasle berrien kop.	Migratutako emakume kop.
2015-2016	18	542	305	82	18
2016-2017	20	635	385	132	33

Galde-eskeak

Emakumeen Etxea

Bilgune Feministak Emakumeen Etxeko parte hartze prozesuaz galdetu du. Berdintasun zinegotziak erantzun du Kontseiluaren hurrengo batzarrean zegoela asmoa gai hau ekartzeko, oraindik horretan lanean ari baikara. Erantsi du, denok dakigunez, aurrekontuan partida bat dagoela Emakumeen Etxeari buruzko parte hartze prozesua egiteko. Prozesu hori taldean egingo dute Berdintasun Zerbitzuak eta Parte Hartze Arloak. Azaldu du iraileko lehenengo asteaz geroztik lanean ari direla, urriaren amaierarako kanpo laguntza kontratatzeko. Izan ere, prozesu hau ezin da barne langileekin aurrera atera.

Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erantzun publikoa emateko protokoloa

EH Bilduk galdetu du protokolo hori egokitzen saiatuko den, edo aldaketaren bat egingo zaion, instituzioaren eta mugimendu feministaren arteko desadostasunik ikusita.

Berdintasun zinegotziaren ustez ez da desadostasunik egon. Izan ere, protokoloa aktibatu beharra planteatu denean zehatz-mehatz bete da. Haren ustez, besterik da elkarte jakin batzuei ez gustatzea edo beraiek pentsatzea lekua kentzen diela.

EH Bilduk erantzun du beraiek ez dutela iradokitzen ez denik bete; ordea, kalean desadostasunak egon direla ikusita, berriro baloratzea posible den galdetu du.

Berdintasun zinegotziak uste du protokolo orok izan beharko lukeela ibilbide bat desadostasunik dagoen ala ez baloratu aurretik. Era berean, galdetu du egokia ote den gai hori Kontseiluaren batzar guztietara ekartzea.

Eskuz esku-k esan du galdera ekaineko bera dela. Elkarteei galdetu die zer egin behar den Getxon mugimendu feminista eta instituzioak elkar hartuta aritzeko.

Berdintasun teknikariak uste du berak egingo lukeen galdera dela zein den eman nahi dugun irudia eraso bat dagoen bakoitzean. Uste du protokoloa ez bada berrikusten eta ez bada adostasunik lortzen bi deialdi ezberdin aurkituko ditugula beti.

PPk EH Bilduren ordezkariari galdetu dio aurreko batzarretan protokoloarekin ados bazeuden zer den orain gaizki deritzena.

EH Bilduk onartzen du protokoloa egiten parte hartu zuela eta une horretan ez zuela ondorioetan pentsatu. Baina uste du kalean jendea ez zaiola gustatu eta ez dagoela harmoniarik. Beraz, bere buruari galdetzen dio noiz arte itxaron beharko den berrikusi ahal izateko.

Berdintasun zinegotziaren ustez sektore bati ez zaio gustatzen udalak elkarretaratze hauek gidatzea. Uste dute kalea eurak biltzen diren lekua dela eta ez zaie ondo iruditzen gainerako herritarrak udalaren deialdi bati erantzunez kalean biltzea.

Mujeres con Voz elkarteak gogora ekarri du aurrekari batzuk badirela. Mugimendu feministak urteak daramatza protokolo komun batekin, eraso bat gertatu eta 48 ordu beranduago deialdia egiteko, eta beti etortzen den jendeak beste deialdi bat aurkitu du. Mugimendu feministarekin biltzeko prest dago, Kontseilutik kanpoko mahai batean.

EH Bilduk gogorarazi du beste leku batzuetan adierazpen instituzionaletan mugimendu feministaren deialdiak babesteko deia egiten dela. Izan ere, bada urte osoan gai hau jorratzen duen jendea, eta ez zaie lekua kendu behar. Horrenbestez, aitortu du orain ez lukeela protokoloan jarriko arratsaldeko deialdia.

Berdintasun teknikariak azaldu du Bilboko jaietan konpartsen koordinakundeak eta mugimendu feministak deitutako elkarretaratzean Bilboko alkateak eta Emakundeko zuzendariak parte hartu zutela.

Guk-ek esan du ez zitzaiola gustatu elkarretaratzearen eta manifestazioaren artean aukeratu behar izatea. Erantsi du hobe litzatekeela, beraien ustez, udalak arratsaldeko elkarretaratzea babestea eta, pertsona horiekin elkartu ahal izanez gero, elkar ulertzera iritsi nahi lukeela.

Berdintasun zinegotziak uste du esertzera iristeko alde biek borondatea izan beharko luketela. Edonola ere, adierazi du ados dagoela mugimendu feminista hurbiltzearekin eta ekarpenak egitearekin. Erantsi du begiratuko dela.

HURRENGO BATZARRA, ABENDUAREN 1EAN